

Jeremias Erro

V-1993

Markalain, 1964.

Erdal Filologia ikasketak egin zituen Iruñean eta Gasteizen.

Toponimia-lanetan zenbait urtez aritu ondoren, egun Nafarroako institutuetan irakasle aritzen da.

Euskaldun berria, hauxe da euskaraz idatzitako lehendabiziko ipuina.

Agorafobia larri bat zuelarik, idazten hasi zen.

Herri-kantak, Tom Waits, Cadafis, Atxaga eta Shakespeare estimu handitan dauzka, baita marrakukua eta haragi errea ere.

NON AZALTZEN BAITA NOLA EZ NUEN JA ERE ENTENDITU

I



orma ilun hauek deskantsagarriak gertatzen zaizkit, hezetasuna adiskide, ixiltasuna gogoko, herio-larria bidemuga. Ezin nezake inolaz ere eguzkiaren argia jasan, eta gaztelu honetako arnotegian bizi naiz. Errementaldegian, arotzaren sutegian, hauspoak haize ematetik gelditzen direnean, surik ez delarik, halaxe akabatzen da bizitza eta gure bihotza, lehenagoko burni goritua, ilundu egiten da, eskoria bilakatuz. Finitu. Eta finitzera noa.

Azken unean, asko bezalaxe, ez ahal naiz oihuka hasiko, imintzio beldugarri eta garrasiak eginez. Eta finitzera noanez, ez nuke mundu hau utzi nahi segidakoa kontatu gabe. Gauza ilun bat, nire gazte denboran gertatutakoa.

Eta ez dezala inork pentsa betiko *carpe diem*, *edertasuna nora joana haiz* eta halakoak kontatzera natorrela. Ez. Ezta hilezkortasunez ere. Bastante gogaitu naiz jenero humanoaz. Nahiago dut, biziki, hurrengoan Portu aldeko saia banaiz.

Gaztelu honetan hainbeste bearnatar eta gaskoiar izaki, euskaldun baten lepotik irri egiteko irrikitan, ez naiz haien hizkuntzaz mintzatzera ausartu. Frantsesa amodioaren mintzaira omen da, eta nahiz oso kapitulu inportantea nire bizitzan izan, azaletik behintzat, nik uste, nire bizitzak gehiago tragediaren antza du. Gaztelera

ez dut oso ongi menperatzen, eta hots hitz gutxi ditu nire bizitzak duen fits-mits pittin hori eskobatzeko. Badirudi modatan dagoela euskara, handiki eta jauntxoek ikasteari ekin diotela, eta maizterrak garenok, nortasunik gabeko ardi galduok haiei jarraitu behar. Dagoeneko orri bat zirriborratu dut, eta ez naiz neure bizitza oraingoz kontatzen hasi. Bukatu baino lehen heriotzak harrapa ez nazala.

II

Garai hartan gerrak zirela eta, inguruko gizon guztiak, hamahiru urtetik gorako gizonezkoak, atzerrian zeuden, ezpata lagun zutela. Udara aldera, pastoralak antzesteko orduan, parte hartzea debekatuta zeukaten emakumeek, gauza jakina baita, emakumezkoen gorputza oso bide aproposa dela Deabruaren mezuak igortzeko. Garai hartan aditu nuen, horrez geroztik maiz aski aditzerik edukiko nuena:

–Hau egingo bada, emakumeek ere lan egin behar.

Ahalgegarria izaten zen Piarreseneko andrea Ediporen lana egiten ikustea. Itsuarena egitea begiurdin eder haiekin. Ez zen sinesgarria. Edota Pitonusaren igarkizuna asmatzen saiatzen zelako itxura egin beharra, erbiak baino azkarragoa zen emakume horrek.

Baina hau ez zen alderik txarrena, makala ez izanda ere, Antzerkia denbora-pasarako zerbait da eta. Alderik txarrena zen emakume horiek nozitzen zuten bakardadea, gizonik falta betegaitza, negua pasatzeko errekako putzu bakartien utzikeria. Zenbat aldiz ez ote nuen halakorik aditzerik izan?:

–Bakarrik oheratzen den ura, hormaturik itzarri.

Eta harremanak ohizko bidetik atera ziren. Eskakizuna handia denean, eskaintza garestitu egiten da, eta gehienetan produktoak berak trakestu, baldartu eta kakaztatu. Gizonezkoek amodioari entzungogor eginik, andre aberatsei lehentasuna ematen ohi zieten, sos eta urringoxo eske, larri meharreko ohatzeez goseak akabatzen.

Erakunde publikoek irtenbide hutsal bilatu zuten, ustiapena luzatzeko. Emakumeen ohorea zaintzeko entrepresak antolatzeak behin behineko konponbidea zirudien, baina ondrazainak berak izaten ziren ondrak zikintzen zituzten lehendabizikoak, emaztekari ahomihiztarien beso laxoetan.

Afera halaxe egonik, emakumeek oihanera jotzea erabaki zuten, zuzenbidetik at bizi izatera. Haur esperantzan eroriez gero, etxeratu, erditu, abizenak eman, eta joan aitzina, horixe egiten zuten, garbi geratu baitzen ateratako gizonen ehuneko laurogei eta hemezortzia, ederki pasatua, ez zela sekula itzuliko, eta etxalde anitz hondatuko.

Horretan ere ez ziren ados jarri, eta amankomunezko arautegi bat egin beharrean, nork berea egin zuen, eta apaiza ohartu orduko, Alduides eta Eugiren arteko mendi guztiak emakume hauetaz josita ziren. Gizon bidariek, nahi eta nahi ez, mendi kate hori gurutzatu behar zuten, Baionako bidean, eta lapurrez gain, elurrak ez zuen bidaia errazten. Gure emakumeek frankotan bizkarka pasatzen zituzten ibiltariak berak, eta gauaren hoztasunean haien saihetsean oheratu ere, amodioarako hain ongi prestatu eta ederturiko saroietan. Eta zer gizonek muzin egiten dio hain amultsuki prestaturiko giro erromantiko bati?

Onbazenduafaria izeneko saroi batetan sortua eta hazia naiz. Nire aita Hon Harfof izeneko alemaniar bat delakoan nago, nire bilo gorriak ez baitu ezpain izpirik zirrikatzen. Nire amaren oroimenean betiko finkatu egin zen gizon puska haren irudi berdingabea.

Badirudi nire amarekin igarotako bi egunak galdezka eman zituela bidaiari aztertzaileak, ea nola esaten zen euskaraz honako hau eta harako hura, ea zer arropa janzten duten gizonezkoek eta zein emakumezkoek, ea mutikoak larrutan ibiltzen diren animaliekin-eta. Oso zelatari arraroa zelako ustearekin geratu zen nire ama zena.

Gero jakin genuen Mitxelin edo Kanpsa izeneko konpainia baterako txosten bat egiten ari zela, Done Iakueko bidean aurki daitezkeen saroi, ostatu, eta mesoien mailei buruzkoa, eta bidenabar gutxiengo hiztegitxo bat oinarrizko harremanak errazteko.

Gure *Onbazenduafaria* saroiari izar bat besterik ez zion ezarri, eta bibliografian nire amaren izena ezta aipatu ere. Hortik omen datorkit hizkuntzak ikasteko grina. Euskaldun jendeaz ere oso uste txarrarekin joan zen. Baina gorago esan bezala, ahalkegarria da nire aitaren portaera. Gizonok eskertxarrekoak gara, minkorrak izatez, sortzez urrunak. Nire amak ez zuen zer ikusia gizon horrek hain itsuski botatakoekin.

Zera gertatu zen. Gure herriko *Gesaleko iturri*tik ura edan omen zuen, jakinaren gainean egonik gatz handiko iturria zela, eta *tripote*tarako txarra, eta trostan ibiltzeko oso komenigarria. Eta kakalarri batean joan zen Urkiagako lepotik Done Jaukueren Katedraleko atari loriosoraino. Neronek txakurrarenak kontatuko nituen halako eskarmentu gorririk izanik.

Horretan ere nire ama zenak ez zuen zorte handirik izan. Petreneko etxandreak mireslandiar mehar bat harrapatu zuen, eta hogei urteren buruan Mireslandiatik sei jaun noble handiki etorri zitzaizkion ea aintzinako harreman horrek fruiturik izan ote zuen, eta emakumeak baietz, eta gizonek dorreko kanpai batek Mireslandiako erregetzaren senide eta ahaide guztiak akabatu dituela, eta bere semeari Mireslandiako koroa zegokiola, eta atorrarik ez baldin bazuen bidean erosiko zizkiotela, eta uzteko jaten ari ziren marrakukua, halako gutiziak handik aurrera falta ez zituela edukiko esanez.

Egia esan, garai nahiko emankorra bizi zuen inguru horrek. Ekonomia loratu zen, alditik aldira gauza hobeak ekarriz. Gizonak ez ziren itzuli, eta emakumeek nolanahi moldatu behar, baina gizonezkoek behintzat bere testamentuetan bere familiez oroitu egin ziren eta egun birik bat ez zen pasatzen notario bat zaku bat urrerekin etorri gabe herrira, ea nor zen Damiela Aguerretxe, eta *tori, zure senarren partetik, sinatu egin iezadazu hemen, ez dakizula?, berdin du, agur eta lan handia dudala, ilunabarrerako hamaika herrixka bisitatu behar baitut*.

Horrexegatik amak hitz ebaki zuen berandu baino lehen neronek ere ospa egin behar nuela. Puska batean pentsakor egon, eta amarik gabe nengoen mundua.

Beraz, esan daiteke haurtzaroa polita eduki nuela. Zoriontsua oso. Baina esan al daiteke haurtzaroa halako urtean eta halako tokian doala?

Ez. Gure haurtzaroaren muga bestelakoa da. Ez da zentimetro batzuen afera. Askoz ere barrengoa, intimoagoa da. Gugatik balitz, litekeena beti haur izatea. Izanez ere kanpotik dator aldaketa. Ama da betiko doana, ama hura.

III

Konturatu nahi orduko kozkortu egin nintzen eta nire ama zenarekin hizketa emankor bat izan nuen. Arratsalde argitsu baten ilunabarra zen, eta eguzkiak hodeirik altuenak argitzen zituen oraindik, urre gorrizko amurrainak sortuz. Eguraldiaren fenomeno horretan pentsatzen ari nintzen, saroiaren aurrealdeko belarretan etzanda, nire ama etorri zitzaidanean. Bere biloa, ezkutatzen ari zen eguzki horren izpiak iruditu zitzaidan, elizan dagoen Ama Birjinaren irudia bezalakoa, eta negar egiteko grina sortu zen nire bihotzean. Eta emekiro, maitekiro hasi zitzaidan hitz egiten, nire etorkizuna soseguan brodatzen bere urrezko bilo horrekin. Haren ustez, bizitza-esperantza berrogei urtera arte luzatzen denez geroz, ez nuen eulikeriatan ibili behar.

Gizonik eza bigarren belaunaldi sutsu batez hornitzen ari zen eta ni hazi orduko merkatua asetua izanen zen. Amerika (beste ohizko irtenbide bat), dagoeneko Iparraldekoa geratzen zen ukitzeke, lurralde pobreena. Gudaria joatea ez zen lehenagoko dirutza. Erlijioarekin eta martxan jartzen ari zen aberri hitzarekin gazte asko musutruk eta musudebalde gudara joateko prest zeuden.

Garai hartan garrantzia handiko gizon bat etorri zen herrira. Nire ama zenari esan zion nik hamatzortzi urte bete bezain fite berarekin mintzatzeko, zer egin ote zitekeen hausnartuko baitzuen. Hori esanez gero, noizik behin nire amak gure baratzeko azarik ederrenak gizonari emateari ekin zion. Maiztasuna areagotu egin zen nire hamazortzigarren urtea hurbiltzen zeneino, eta esporta bat azaz gainera, denetarik oparitzen genion astero.

Harrigarria zen. Gizon hura agertze zen aldiero, makurrago jaten genuen, eskasean, azalak, ur usaintsuak-eta. Eta, gauez etortzeari ekin ziolarik, nik zeru hutsean egin behar nuen lo. Beharrik halako batean hankasartze eder bat izandu zuen. Amari amodiozko poema bat ekarri zion, eta ongi eskarmenturik zegoen jendilaje horrekin. Donapaleuko sindikua izateraino heldu zen eta alarguntsa aberats batekin ezkondu. Nork pentsa ote zezakeen guk hainbeste aza inbertitu eta gero, dena gezur hutsa izango zela?

Modu honetan, larrazkeneko goiz batean nire amak igorri ninduen bere ezagun baten bordara, portuaz beste aldera ez, Ifernuko Lepo inguruan, seiehun ardi eta aker bateko artaldea zaintzera. Ez nintzen berriro nire etxera bueltatuko, eta horregatik ezin izan nuen behar den moduan nire haurtzaroko eszenatokia agurtu eta modu honetaz seiehun ardi eta aker bateko artaldea zaintzera joan nintzen.

Seiehun ardi eta aker bateko artaldea maneiatzen nuen. Etxeko andrea alargun bat zen eta ez da zaila igartzea zergatia. Bere gorputza osoa, zangoak, besoak eta bizkarrezurra barna, etengabeko dirdira batean zeuzkan. Basapizti halakorik mundu honetan aurkitzea ez da erreza. Hitz egin beharrean, keinuka bere nahia aditzera ematen zuen, eta bere keinu-hiztegia oso urria zenez gero, ulergarri askoa, atseginezko elerik ez baitzuen.

Beldur nintzen ez ote zen halako batean senarraren arima gaizki ehortziak nire atean joko, mendeku eske, atso garainpetsu horren aurka. Tratu txarra jasoa zen, hori seguru, eta honez gero luzetsita ere bere emaztekia ifernuan ez ikusteagatik.

Auzoan ere ospe onik ez zeukan sorginak, barrideei entzunez gero. Pentzeetako eta herritako mugarriek emakume honen ibilera ikusi bezain pronto, pronto hasten baitziren dantzaka, ondo finkaturikoak baziren ere.

Baina bere iruzurren fruituak ez ziren hautematen borda hartan. Zaharraren zaharrez etxeko hormak berak erortzen ziren eta jatekorik ez zen erraz aurkitzen. Peskizan ibili nintzen ea ganbara ilun haietan umerik edo haurrik gordetzen ote zuen, edota nire ohatzeak tramankuluren bat ote zuen kaiola bihurtzeko. Baina ez,

ez zuen halakorik. Haurrak harrapatzeko txokolatezko amuren bat ipintzekoa da txikien gozozalekeria eta limitikeria asetzeko. Baina, kia. Horrek gastatu txokolatean? Ezta irazaharra ere ez zien emanen. Aferari tankera txarra hartzen nion. Sorgina zinezko sorgina ote zen pentsatzekoa zen. Edozein egunetan arditara igorri beharrean, igor nintzakeen zapo-talde batekin lohi-zingira batera, edota urkatuen giza-haziaren bila, edota garagartzetan barna errauts madarikatua hedatzera.

Baina sorgingintzako lantxo bat egokitzen zidan artean, normalean Pulpuliturri izeneko soil batean egoten nintzen nire ardiartaldearekin, mendi handi baten magalean. Toki ederra ilunabarra ikusteko. Batez ere marrakuku bat jaten artean. Plazer hori nik ez nuen probatu.

Leku hartan, berriz, putre asko agertzen ziren, eta pentsatzekoa zen ez ote zitzaidan senarraren arima dantzaria hortik ageriko, putreen bitartekaritzaz profitatuz eta emaztearen urrunaz.

Saiei begira puska luzeak ematen nituen. Handik puska batera ez zatekeen harritzeko izanen ni haien urdaietan ibiltzea, atso horren arrimuan denbora sobera emanez gerotan, doikebe. Abereren bat hiltzen zenean, batzar bat egiten zuten saiek, gorpuaren inguruz inguru. Lehertzeraino jaten zuten, hatsa hartzeko betarik gabe. Egingo nuke neronek baino askoz ere gehiago jan zutela bezperan eta hala ere, mokoarekin minusketak egin behar.

Gero putreek dantza borobil batez agurtzen zituzten gorpuak, arimak zerura eramateko prestatuz. Harik eta sabelak hornitu arte jaten zutenez, gero, hegal egiteko, lasterka hasi behar zuten, eta amildegi batetik bota, pixkanaka pixkanaka goitira joz. Ez ziren gauza toki zelai batetik hegal egiten hasteko.

Eta mirakulu arraro bat gertatu zen. Behin, putre batek, zeruratze lan ikusgarri hori egin eta gero, gehiegi jan zuelako edo, malkor baten kontra jo zuen eta seko nire aldamenean erori zen. Baina ez zegoen hilik. Ez zekien berak ere putre bat zenik ere, baina behin behineko egoera zen. Ikustekoa da haien begiko ñiñirikoa. Katuek ahoan ibilitako saguen kolorekoak, edota edanari emaniko atsoena.

Eta niri otu zitzaidan akerraren zintzarria haren zintzurretik zintzilikatzea, horrela, zerupiztia zirikatzeagatik. Eta juxtu une horretan, hura putre bat zela ohartu orduko, digestioa egina zuen eta zerura abiatu zen, zintzarria eten gabe eta oso musikalki joz, haur bati tutu bat erosten zaiolarik bezala. Destrozo jenerala.

Ez da desenkusatzeagatik, baina, nahi gabe izan zen dena, eta bakartasunean bizitzera behartu nuen putrea. Haren lagun hurkoek bere zintzarria aditzerakoan (hegan egitean nahi eta nahi ez igitarazten baitzuen joarea), berarengandik alde egiten zuten, guztiz izuturik, haiek jaten zuten aziendaren gorpuen arimek jarraitu izan baliete bezala. Ustekabe nik zintzilikatutako edergarri horrek bakarrik hegal egitera betiko behartu zuen, zeruaren luzera bukaezinean. Nahita ere, ez zen hain kaltegarria izanen.

Ez al nintzen etxera iritsi eta agure hori galdezka nuen non ote zegoen akerraren zintzarria, ea nori saldu nion, eta ni ez nintzela konturatu, eta bestea ezetz, beste gauza aditzeko balio duenak hori ere aditu behar zuela. Azkenean igorri ninduen zintzarria aurkitzera eta zintzarria gabe etxera ez iristeko. Putrearen baitan pentsatzen nuen, putrearen bakartasunean. Apika kenduko zuen bere zintzarria, eta bere taldean sartzen utziko zioten, eta *orain ohizko putre bat da, behar den baino gehiago jaten duten horietarikoa, eta amildegi txiki baten bila ibiltzen direnetakoa, gorpuen arimak eramanez.*

Gauak oihanean harrapatu ninduen, eta hotzak akabatzen iritsi nintzen atsoaren etxera. Sabaira doan zubitxoren azpian lo egin nuen. Biharamuneko goizean lekutzeko asmotan nenbilen. Baina ez nuen barrenik eduki. Banekien kapaza zela *gaueko bat* nire bila igortzeko eta edozein eratan ni hilarazteko. Gezur bat esan nion. Ijito lapurtar bati saldu niola. Ordea emateko, lapurretan ibili behar eduki nuen.

Behin, atso horrekin mezatara gindoazela (deabrua beti elizkoia), Kaserna menditik akerraren zintzarriaren soinua aditu genuen hor nonbait. Hark ez zuen burua jiratu, arras ongi baitzekien dena.

Urte baten buruko, Auñamendiko zeruan, lepotik zintzilikatuta zintzarri bat zeraman putre baten berria hedatu zen, putre bakarti baten berria, eta denen ustez, etorkizun ziren ezbehar ororen seinalea zen. Herria sineskerietan sartzea ez da harritzekoa. Nik ez nuen deus ere esaten, ez zidaten sinetsiko.

Afera zen sorgin horrek abarrebakitu ninduela gogorki ongi. Bizitzeko gogorik ez nuen. Bere senar zenaren bide beratik nindoan. Gure elkarrenganako gorrotoa begi bistan zegoen, gauza jakina zen herri osorako.

Eta honela nire bizitza ebakiko zuen ateka estu honetara heldu nintzen. Eta zer egin? Artzain xume bat izaten segitu, harperik gabeko mundu gaitz honetan, edota atso zorrizto hura akabatu, sosak hartu eta desiozko aita onen semeak bezala bizi? Zer izan? Artzain xume bat bildots eta umerri solasdunen artean, egunak etorri eta egunak joan, zerura begiralea, ea argitzen duen, ea kazkabarra botako ote duen, ea munduak dagoen-dagoenean segitzen duen? Edota mutiko aberats bat izan, neska kaskagorriak eta beraien ama konkordunak gainetik ezin kenduz bizi dena, denon estimu handitan ibiltzeko handiki? Hondar bide honek bazuen langa bat, atso hori akabatu behar nuela eta sosa non gordetzen zuen bilatzea.

Atso horren joan-etorriak estuki zelatatu nituen. Eta nire susmo txar guztiak egiaztatu ahal izan nituen zehazki. Egia zen. Gauez Pagadizarreko soilgune batean beste jendilaje arraro batekin biltzen zen, eta ezkutuko gauzak egiten.

IV

Pagadietan, lehendabiziko argiak zerua urratzen duelarik, uda partean, izaten da argiputza. Oihanean ibiliak garenok franko ongi dakigu hori. Gauaren lantxurdeak, orbelaren gainean zabaldurik, puzker-urrin izugarria botatzen du, usteldurik hostoek, enborrek eta adaxkek botatzen dutena. Gero, eguzkiak zeruko sabaia hartzen duenean, eta gaueko hezetasuna idortzen denean,

desagertzen da ustelkeria-usaina, argiputza. Antzeko zerbait gertatzen da gaiztakeriekin. Behin aberastuz gero, kiratsa urringoxo bihurtu.

Atsoak bazituen sos anitz eta erdietsi nuen jakitea non. Susmagarri iruditu zitzaidan azken hau. Orain akabatu baino ez nuen egin behar.

Honetan ere hotz-hotza eta burutsua izan nintzen. Heriotzak naturala eman behar zuen. Niretako ezinezko lana. Atsoak berak eman zidan bidea. Sorgin honek maizegi gurutzatzen zuen elizataria. Horrexegatik, meza nagusi bat zela-eta, aldez aurretik bere elizako besaulkiaren azpiko aldea zapoz eta sugez bete nituen, eltxeitsu batean, bera belaunaldikatzean botako zuena. Horretarako lan handia egin behar eduki nuen, baita egin ere.

Mezatara joateko ordua ailegatu zenean, hilketaren egunean, sukaldera joateko esan zidan, eta ezustean, marrakuku bat jateko esan. Pozointsua zegoela pentsatu nuen, baina berak nik baino lehen hortzkada bat eman zion. Eta juxtu instant horretan atzera egiteko gogoa piztu zitzaidan:

–Ez joan mezatara! –esan nion.

–Nafarroak merezi bide du meza bat –erantzun zidan.

Ni harri eginda geratu nintzen. Eta gainontzeko guztia xuxen-xuxen gertatu zen. Atsoa mezatara joan, eta elizaren sagarapenaren tenorean eltzeitsua bota, sugeak eta zapoak atera, atsoa sorgintzat hartu eta handik aste batera herriko plazan erre.

Orduko, nik bere sos guztiak ongi gordeta nituen. Eta handik puska batera lekutu nintzen. Franko ongi oroitzen naiz nola ireki nuen zahagi hura. Urrezko eta zilarrezko monetaz beterik zegoen, baina harrigarriena zen ez zirela Frantzia aldekoak, baizik eta gehienak Gaztelakoak. Baziren ere eskuizkribu anitz gaztelaniaz idatziak, eta hasi ere hasi nintzen irakurtzen, baina nire lepotik arriskurik kentzeko-edo, den-denak erre nituen. Oso sorgin arraroa, sorgina bazen. Gero, neronek atsoaren sosak akitu nituen, gaizkile batek bere hilketaren probak garbitzen dituen moduan.

Bada enteditu ez nuen gauza hauxe da. Herenegun, Frantziako errege izendatuko duten ez kristau horrek esan duena eta atso hark esan zuen bat bera dela.

–Parisek merezi du bai meza bat.

Eta pentsatzen hasi naiz ez ote zuten Endrikek eta Atsoak elkar harturik lan egiten, eta ni, jakin gabe, haien laguntzailea.